



TOLOSAKO
UDALA

2025DO200054

TOLOSAKO UDALAREN ETA LARRAMENDI BIZIRIK AUZO ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Tolosako udaletxean, sinadura digitaleko datan.

ELKARTURIK

Alde batetik, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Tolosako Udaleko Festak Saileko Zinegotzi Delegatua, Tolosako Udaleko Idazkari akzidentalak Francisco Javier Araniguria Rodrigok lagunduta

Eta bestetik, Iñigo Unanue Martinez jauna, Larramendi Bizirik Auzo Elkartearen izenean. IFKa: G75067249

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua xedaturikoaren arabera.

Bigarrenak, Iñigo Unanue Martinez jauna, Larramendi Bizirik Auzo Elkartearen Elkartearen izenean

Bi aldeek Hitzarmen hau emateko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AZALTZEN DUTE

I.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 25. artikuluan honela dioela:

“Udallerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.

Hain zuzen ere, Lege horren 25.2 artikulua, udalen eskumenen artean, eskumen hau jasotzen duela: kultur jardueren eta guneen sustatzea.

Era berean, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 17. artikuluan, udallerrien eskumen propioak zeintzuk diren aipatzen ditu, kultura eta kultur-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura ekipamenduak kudeatzea tartean.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, koordinazioko eta lankidetzako, gizarte-ekimenaren sustapeneko eta baliabideen aprobetxamendu osoko, arrazional eta eraginkorreko printzipioak aplikatuz, egoki gertatzen denetan, gizarte-ekimen pribatuak garatzen dituen gaitasunak eta baliabideak aprobetxatzen ahaleginduko dira.



TOLOSAKO
UDALA

2025DO200054

II.- Iñigo Unanue Martinez jaunak 2025ko urriaren 14ean (13536 sarrera zenbakia) 2025. urteko festen aktibitatean egitaraua aurkeztu du.

Dokumentu honetan honako aktibitate nagusi hau azaltzen da:

- Larramendi auzoko jaiak.

Aktibitate hauetarako aurreikusten duten aurrekontua honako hau da:

- Gastuak 15.200 €
- Sarrerak 4.500 €

III.- Larramendi Bizirik Auzo Elkarteak Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko dituen betebeharrak eta dirulaguntza jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak betetzen dituela frogatzen duten agiriak aurkeztu ditu. Era berean, frogatu ahal izan da diruz laguntzeko eskatzen diren jarduerak bat datozela elkartearen estatutuetan arautzen diren xedeekin.

IV.- Tolosako udalak 2025. urterako onartutako aurrekontuetan 9.800 € dirulaguntza izenduna onartu du, Larramendi Bizirik Auzo Elkartearen Elkartearen jarduera laguntzeko 0800 481.16.33800 zenbakidun partidan.

V.- Hitzarmen hau ematen dela lege-arau hauen babesean: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko lege orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena: Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Tolosako Udalaren eta Larramendi Bizirik Auzo Elkartearen arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Tolosako udalerrriaren barruan.

Bigarrena: Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen eremuan honako jarduera hauek sartzen dira:

- Larramendi auzoko jaien ekintzak eta antolaketa gastuak.
- Berreskuratu nahi diren beste kultura jarduerak.

ESKUA5f02e64-14e3-4a17-b757-2729233a7cce



TOLOSAKO
UDALA

2025DO200054

Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.

Tolosako Udalak hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan dirulaguntza baten bidez. 2025eko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek 9.800euro izango dira, 0800 481.16. 33800 Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste Erakunde batzuen dirulaguntzak ere jaso ditzake.

Diru-laguntza zenbateko zehatza izango da, kostu osoaren ehuneko edo frakzio bat aplikatu gabe finkatu dena. Diruz lagundutako jarduera osorik gauzatzeko beharrezkoa den finantzaketa-aldea onuradunaren kontura geratzen dela ulertuko da.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden diren beste dirulaguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa-kasuak honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Tolosako udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

Dirulaguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Laugarrena: Indarraldia.

Hitzarmen honek 2025ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio Kultura, Festak eta Gazteria departamentuari, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoaren arabera.

Bosgarrena: Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.



Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorren aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira dirulaguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, espresuki justifikatu beharko dira, memoria baten bidez, erabili diren irizpideak.

Gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak aurkeztu ez badira edo aukeratu bada, behar bezala arrazoitu gabe, proposamen ekonomikorik onena ez baizik besteren bat, organo emaileak eskatu ahal izango du ondasun edo zerbitzuaren peritu-tasazio bat egin dadila, eta sortzen diren gastuak pertsona onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, dirulaguntza kalkulatu da erreferentziatzat harturik bi balioetan txikiena dena: pertsona onuradunarena edo tasazioaren ondorioz ateratakoa.

Seigarrena: Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak betetzearen eta lortzearen justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusita dagoenaren arabera.

Dirulaguntza justifikatzeko «kontu erraztua» izeneko modalitatea erabiliko da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa ondorengo hau izango da:

2026ko urtarrilaren 31a baino lehen:

a) Jarduera-memoria bat dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direlako justifikatzeko, non adieraziko den zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren. Memorian berriaz jaso behar da dirulaguntzaren helburua bete dela, eta, hala badagokio, aurreikusitako helburuen aldean benetan lortutakoen ebaluazio bat.



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legearen arabera, memorian sexuaren arabera bereizita aurkeztuko da emandako zerbitzuaren azken onuradunen edo erabiltzaileen, titularren eta langileen eta erakundeak dirulaguntza eskatu den zerbitzua emateko kontratatutako langileen informazioa.

b) Diru-sarreraren eta gastuen balantzea, non diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren gastu eta diru-sarrerak jasoko dituen.

Tolosako Udalaren BAL izeneko dokumentua erabili behar da horretarako eta erakunde onuradunaren lehendakariak edo idazkariak sinatu behar du.

c) Gastuak eta inbertsioak sailkatzen dituen zerrenda bat, hartzekoduna eta dokumentua, data eta ordainketa datak adierazita.

Tolosako udalaren GAS izeneko eredia erabili behar da horretarako eta jatorrizko formatuan (xls) aurkeztu beharko da, inolako sinadurarik gabe.

Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, gastu eta inbertsoen zerrenda proiektuaren edo diruz lagundutako jardueraren partiden arabera ere sailkatuko da eta adieraziko da zein desbideratze izan diren.

Finantzaketa-iturri bat baino gehiago erabili direnean, Tolosako Udalak gastu horri dagokionez finantzatutako ehuneko aldakorra adieraziko da.

GAS dokumentuko gastuen guztizkoak bat etorri beharko du BAL dokumentuko gastuen guztizkoarekin.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zehaztapen bat, non zenbatekoa eta jatorria adieraziko diren.

Aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren eta dagokion organoak dokumentazio gehigarria aurkezteko errekerimendua egin ondoren:

Dirulaguntzaren zuriketa aurkezteko «kontu erraztua» izeneko modalitatea erabiliko denez, organo emaileak dirulaguntza egoki aplikatu dela egiaztatzeko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagiriaren lagin bat begiratuko du.

Horretarako, a), b), c) eta d) letretan aipatutako dokumentazioa aztertu ondoren, c) letrako gastuak eta inbertsioak sailkatzen dituen zerrendako zenbait gastu eta inbertsioren ondorengo dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egingo da:

- fakturak eta merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak.
- eta agiri horien ordainketak eginda daudela egiaztatzen dituen dokumentazioa.

Onuradunak 10 eguneko epea izango du aipatutako errekerimendua jakinarazten zaionetik dagokion dokumentazioa aurkez dezan.

Jatorrizko agiri horiek aurkeztuko dira zerrenda zenbakituan emandako hurrenkera-zenbakiaren



arabera hurrenez hurren ordenatuta. PDF dokumentu bakarrean aurkeztu beharko dira faktura eta gastua ordaindu izanaren dokumentu guztiak.

Egiaztatu beharreko elementu-kopurua, ondoren adierazten diren mugak errespetatuta kalkulatu da:

- Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren %25a gainditzen duten egiaztagiri guztiak begiratuko dira.
- Gainerako egiaztagirietatik begiratuko da elementuen lagin bat, zeina gutxienez portzentaje hau den populazio osoaren elementu-kopuruarekiko:

- Egiaztagiriak hamar edo hamar baino gutxiago badira: %100.
- Egiaztagiriak hamar baino gehiago eta hogeit hamar baino gutxiago badira: %70.
- Egiaztagiriak hogeit hamar baino gehiago eta berrogeit hamar baino gutxiago badira: %40.
- Egiaztagiriak berrogeit hamar baino gehiago eta ehun edo ehun baino gutxiago badira: %30.
- Egiaztagiriak ehun baino gehiago badira: %20.

Zazpigarrena: Ordaintzeko prozedura.

Dirulaguntzaren ordainketa egingo da, organo eskudunak onartuta, beti ere jarduerarengatik eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Dirulaguntza honako era honetan ordainduko da:

- %75a aurrerakin gisara, aldeztur aurretik urteko jardueren programa eta aurrekontua aurkeztuta, baldin eta justifikatuta badago ordainketa aurreratzeko beharra subentzio-gai diren jarduerak aurrera eramane ahal izateko. Bestalde, organo eskudunak erabakiaren jakinarazpena egin eta dirulaguntzaren hitzarmena sinatu ondoren.
- Gainontzekoa, egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztu eta organo eskudunak horren oniritzia eman ondoren. Justifikazioa hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu behar delarik.

Betebeharreko baldintza izango da Tolosako Udalak aurretik emandako dirulaguntzen justifikazio dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste dirulaguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

Organo eskudunak erabakitzen badu onuradunak aurrerakin gisa jasotako zenbatekoa, osorik edo zati batean, itzuli behar duela, itzuli beharreko zenbatekoari dagokion berandutze-interesa erantsiko zaiola. Horretarako, Tolosako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorreko 41. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da

Ordainketak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Zortzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak, diruz



lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baitira, esaterako, karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan Tolosako udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea, edo hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Bederatzigarrena: Euskararen erabilpena.

Erakunde onuradunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu – euskarari lehentasuna emanda– diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzi a izan, berdin jokatu beharko du.

Halaber, ekitaldi jakinetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.

Hamargarrena: Genero berdintasuna.

Ezin izango dute parte hartu eta ez dira pertsona edo entitate onuradun izango ondorengo hauek:

- Pertsona fisiko edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek.
- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 3ko 1/2022 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 3ko 1/2022 Legean, edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.

Hamaikagarrena: Jarraipen batzordea.

Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argiturik; dirulaguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzara bide berriak proposatzea.

Batzorde hau elkarteko bi ordezkariak eta Tolosako udaleko kultur zinegotziak eta kultur teknikarietako batek osatuko dute.



TOLOSAKO
UDALA

2025DO200054

Tolosako Udalak egoki irizten dituen ikuskapen eta ziurtapenak egiteko ahalmena du, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko helburuarekin.

Hamabigarrena: Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamahirugarrena: Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratorzen den guztiari dagokienean.

Hamalagarrena: Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamabosgarrena: Erantzukizunpeko adierazpena.

Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 10.11 artikuluan xedatutakoaren arabera, DLOren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekuetan erortzen ez delako egiaztapena egingo da notario baten edo funtzionario publiko baten aurrean, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

Hamaseigarrena: Ordezko legeria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromiso hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplika daitekeen guztian, beteko dutela.

Hemezortzigarrena: Dokumentuen kontsulta eta elkarreragingarritasuna.

39/2015 Legearen 28.artikuluan, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.artikuluan eta 38/ 2003 Legearen 14.artikuluan ezarritakoari jarraiki, Tolosako Udalak informazioa kontsultatuko du zuzenean bere datu baseetan eta, interesdunak horren aurka egiten ez badu, NISAE elkarreragingarritasun nodoaren bidez Gipuzkoako Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzan, laguntza lortzeko baldintzak betetzen diren egiaztatzeko behar diren datuak eta, bereziki, honako hauek: Foru Ogasunaren zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean izatea, eta enpresaren datuak.

Hemeretzigarrena: Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki taulan.



2025DO200054

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmenaren hiru ale izenpetzen dituzte bi aldeek, nire aurrean eta sinadura elektronikoaren egunean; Idazkari akzidental naizen honek fede ematen dut.

FESTETAKO ZINEGOTZIA

Larramendi Bizirik Auzo Elkartearen

Aitzol Luis Garcia Azurmendi

Iñigo Unanue Martinez

IDAZKARI AKZIDENTALA

Francisco Javier Araniguria Rodrigo

